

NAHITAEZKO MUGIKORTASUNA ARAUTZEKO JARRAIBIDEAK, ESKUALDEKO LANPOSTUETARA BEHIN BETIKOZ ATXIKIRIKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO FUNTZIONARIOEI DAGOZKIENAK

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren martxoaren 17ko 519/2011 Ebazpenean ezarritakoaren arabera, 2024-2025 ikasturterako eskualdean behin betiko destinoa duten Entzumeneko eta Hezkuntzako irakasleen eta Egoera Ahulean Dauden Ikasleei Laguntzeko Programako irakasleen mugikortasun orokorra egin beharra dago.

Lau ikasturtean behin, ikasturtea hasi baino lehen, nahitaezko ekitaldi orokor bat egingen da, zeinean destinoa eskualdean duten irakasle guztiek hautatu beharko dituzten eskualdeko ikastetxea edo ikastetxeak (lanpostu ibiltarien kasuan), betiere programa bakoitzeko irakasle espezialistak behar badituzte.

Ebazpenak aipatzen duen azken nahitaezko mugikortasuna 2020-2021 ikasturtea hasi aurretik egin zen, hortaz, 2024-2025 ikasturterako egin beharra dago berriro.

NORK HARTUKO DUEN PARTE AUKERATZEKO EKITALDIAN

Mugikortasun honetan parte hartu beharko dute **eskualdean behin betiko destinoa duten irakasle guztiek**, eskualdeko destinoa ikasturte honetako lekualdatze-lehiaketan lortu duten horiek barne.

Aukeratzeko ekitaldirako, parte-hartzaileak eskualdeka elkartuko dira, 2024ko irailaren 1ean izanen duten behin betiko destinoaren arabera.

AUKERATZEKO HURRENKERA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Eskualdean behin betiko destinoa duten Entzumeneko eta Hezkuntzako irakasleek eta Egoera Ahulean Dauden Ikasleei Laguntzeko Programako irakasleek, hala funtzionarioek nola lan-kontratadun finkoek, aukeratu beharko dute kontuan hartuz zein hizkuntzatan lortu zuten lanpostua lekualdatze-lehiaketan eta martxoaren 17ko 519/2011 Ebazpenari jarraikiz:

- Antzintasuna, eskualdea, espezialitatea edo programa behin betiko destinoa izanik duen atxikipenean; borondatezko eszedentziako denbora ez da zenbatuko.
- Antzintasuna behin betiko destinoa duen atxikipenean, borondatezko eszedentziaren denbora zenbatu gabe, dagokion espezialitate edo programan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeak banatzen diren eskualdeetako edozeinetan.
- Maisu-maistren Kidegoko funtzionario gisa duten antzintasuna. Abenduaren 30eko 31/1991 Legearen 29. xedapen gehigarriaren arabera kidegoan sarturiko langileen kasuan, Maisu-maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa duten antzintasunari lan-kontratadun finko gisa egiaztatuta dutena gehituko zaio, lehenengo zerbitzu urtea kenduta.
- Maisu-maistren Kidegoan sartzeko hautapen prozeduran lortutako puntuazio handiagoa edo zerrenda kopuru txikiagoa.

Profil eleaniztuneko lanpostuetan behin betiko destinoa duten maisu-maistra funtzionario dauden eremuetan, lehenik eta nahitaez hautatu beharko dituzte eremu horretako eta eskakizun horretako lanpostuak.

Behin hautaketa eginda, hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak hutsik geldituz gero, eskakizuna egiaztatu duten gainerako izangaiei eskainiko zaizkie.

PROZEDURA ETA LANPOSTUAK HAUTATZEA

- Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, aukeratzeko jarraitu beharko duten hurrenkeran antolatua 519/2011 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.
- Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleen behin-behineko zerrendari buruzko erreklamazioak aurkezteko epea. Eskaerak, nahitaez, Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko dira. Tramitazioa gaituko da webguneko fitxan.
- Eskualde bakoitzari atxikitako irakasleen behin betiko zerrendak, aukeratzeko duten hurrenkeran.
- Lanpostuak hautatzeko ekitaldiaren data eta ordu-banaketa argitaratuko dira. Ekitaldia Hezkuntza Departamentuko ekitaldi-aretoan izango da.
- Eskainitako lanpostuak. Lanpostu hauek alda daitezke. Aldatzen badira, horren berri emanen da aukeratzeko ekitaldia egin baino lehenago edo ekitaldian berean, destinoen esleipenari eragiten badio.

LANPOSTUAK HAUTATZEA

Deituriko irakasleek eskualde bakoitzerako ezarritako hurrenkeran aukeratu beharko dute. Eskualdean deituriko irakasleak baino lanpostu gutxiago egonez gero, irakasleek, bakoitzak lanpostua aukeratzeko duen hurrenkeran, lanpostua hartzeari uko egiten ahalko diote, aukeratzailer adina lanpostu eskaini arte. Arrazoi hori dela-eta, beren eskualdean lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonak irakaslanik ez izateagatik ikastetxetik aldarazi dituztenen zerrendan sartuko dira gainerako irakasle funtzionarioen destinoak telematikoki esleitzeko eginen diren ekitaldietarako.

Lanpostuak aukeratzeko ekitaldira joaterik ez duenak beste norbaiti eman beharko dio baimena bere ordeztu dadin. Horretarako, web fitxan argitaratu den dokumentazioa bete beharko du.

Deitutako pertsona bat ez bada aukeraketa ekitaldira joaten, irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioski esleitu dio bere eskualdean hutsik gelditzen diren zerrendaren lehen lanpostura, lanaldia eta hizkuntza kontuan hartuta.

LANPOSTUAK

Lanpostuak zehazteko orduan ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Oharretan beste espezialitate batekin konpartituak direla jarria duten lanpostuei ezin izanen zaie uko egin, lanpostu librerik ez badago.
- Hizkuntza eskakizuna duen lanpostu bat aukeratu ahal izateko, irakasleak eskakizun hori izan beharko du.

Lanaldi partzialeko lanpostuak eskainiko dira, eta funtzionarioen batek haietako bat hautatuz gero (adinagatiko murrizketa kasuetan izan ezik) konpromisoa hartuko du lanaldia dagokion heinean laburtzeko eskatzeko, honako taula honen arabera:

	Lan-ordutegia. Lanaldia											
Murrizketa	2/3	1/2	45%	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	55 urte	56 urte	57 urte	58 urte
Lanpostuaren lanaldia (orduak)	9	13	14	15	16	18	21	22	24	23	22	18

Adinagatiko murrizketa dagokienez kasuan, honelako lanpostuak aukeratzeko ahalko dituzte: adin bakoitzari dagokion ordu-murrizketa dutenetatik lanaldi osokoak diren etara. Norberaren adinari dagokion murrizketarekin bat ez datorren lanpostu bat aukeratzeko bada eta lanpostu hori lanaldi partzialekoa bada, jada ezin izanen da murrizketa handiagoa eskatu lanaldi horren gainean.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an.

IRAKASLEAK HAUTATZEKO ETA
LANPOSTUAK BETETZEKO ZERBITZUAREN ZUZENDARIA



Ricardo Iribas Latour